



Berreginez

HARITZEN ARTEAN

Haritzen artean aritzen zinen
bakardadean berba egiten.
Auzoko umeeek burla egiten eutsuen,
Zuk irribarrez zendun erantzuten.

Inor baino zoroago,
inor baino jakitunago

Behin eskutik eroan zeunstan
zure fantasi mundura.
Bertan ikasi neban
bizipozari kantetan.

Inor baino jakitunago,
zoroago.

Kanpaiek mundu hori dabe lurperatu
zure azken arnasaren egunean.
Auzokoek negarrez zaitue agurtu,
baina nik haritzen artean aurkituko zaitut.

ENTRE LOS ROBLES

Divagabas entre los robles
hablando a solas.
Los niños del barrio se burlaban de ti,
tú contestabas con una sonrisa.

Más loca y más sabia
que cualquiera.

Una vez me llevaste de la mano
a tu mundo de fantasía.
Allí aprendí
a cantarle a la vida.

Más loca y más sabia
que cualquiera.

El crepitar de las campanas
han enterrado ese mundo
el día de tu último aliento.
Los niños del barrio lloran,
pero yo te encontraré entre los robles.

Musika eta hitzak: Inun.